

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA****Dirubilketa Zerbitzua****Zuzeneko kudeaketa eta adjudikazio bidezko salmentaren iragarkia**

2014EXP48002735 premiamendu prozeduran zordunari enbargatutako ondasun higiezinaren enkante publikoan adjudikatu gabe geratu da bere bi lizitazioetan. Enkante honen iragarkia 2025eko martxoaren 7ko 27 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen eta Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketaren Arautegi Orokorren 180. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ekainaren 4ko 3199/2025 ebazpenaren bidez baimena eman da ondasun higiezinaren zuzeneko kudeaketa adjudikazio bidez saltzeko. Hau da ondasun higiezinaren:

Lehenengo sorta eta bakarra.

Hirikoa - Berrogeita bederatzi zenbakia. Merkataritza lokala, B-2-3 lokala, Vitoria-Gasteizko eraikineko bigarren solairuan, Posta, Bake eta Independentzia kaleen artean. Higiezinaren erkidego estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, finka horren erabilera Apaindegia, Ile apainketa eta Produktu Kosmetikoen jarduerari esleitzen zaio. Ehun eta hogeita hamasei eta hogeita hamabost metro koadroko azalera eraikia. Mugakideak: iparraldean, Bake kaleko bederatzi zenbakiko etxea eta zentroko bainugela komunak, eta, zati batean, B-4 lokala eta zentroko eta B-1 lokaleko sarbide eta pasabide komunak; ekialdean, B-1 eta A-1 lokalak; eta mendebaldean, zentroko bainugela komunak, B-4 lokala eta zentroko sarbide eta pasabide komunak. Fatxadaren hamabi eta hirurogeita bost metro lineal ditu. Kuota ehuneko 1,1366.

Zordunak enbargatutako finkaren gainean dituen eskubideak: Gestión y Estilo SAk jabari osoa du Dendaraba SAri egindako erosketaren bidez; Enrique Arana Cañedo-Argüelles notario jaunak 1989ko urtarrilaren 18an egiletsi zuen eskritura Vitoria-Gasteizen, finkaren 2. inskripzioan agertzen denez.

Vitoria-Gasteizko 5 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatuta, Vitoria-Gasteizko udalerriko 3879 liburukian, 313 liburuan, 97 folioan; 13186 zenbakiko erregistro finkan. Idufir: 01009000516350.

Finka horren gainean hipoteka bat dago inskribatuta Elkargi Elkarren Bermerako Sozietatearen alde, Vitoria-Gasteizko Enrique Arana Cañedo-Argüelles notario jaunak 1989ko urtarrilaren 18an baimendutako eskritura publikoan formalizatua. Elkargi EBSren 2021eko urriaren 13ko idazkiaren arabera, hipoteka ekonomikoki kitatuta dago. Ondorioz, ez dago espediente honetatik sortutako eta foru aldundiak egindako enbargo idatzoharra baino lehengoko karga ekonomikorik.

Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketarako Araudi Orokorren 180.5.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, zuzeneko adjudikazioaren gutxieneko prezioa enkantearen tasaren ehuneko 50 izango da lehen lizitazioan, bi lizitazio egin baitira enkante publikoan, hau da, 102.350,00 euro sorta barrarera.

Interesdunek sinatutako eskaintza gutun azal itxian aurkeztu beharko dute Derrigorrezko Dirubilketako Bulegoan (Probintzia plaza 13 behean, Vitoria-Gasteiz). Gutun azal horrekin batera, beste gutun azal bat aurkeztu beharko da, honako agiri hauekin:

a) Lizitatzailaren nortasun agiri nazionala eta, hala badagokio, duen ordezkaritza justifikatzen duen eskritura publikoa edo agiria.

Dokumentu horien ordezkari, kopia konpultsatuta edo erkatuta aurkeztu ahaliko dira.

b) Arabako Foru Aldundiaren aldeko txeki adostua, edo fidantzaren zenbatekoa duen eskudirua, zeinak bigarren lizitazioan eskatutakoaren berdina izan beharko baitu, hau da, 30.705,00 euro.

Interesdunek egindako eskaintzak jasotzen dituzten gutun azalak ireki ondoren, interesdunek eskaintzari uko egiten badiote edo eskaintza erretiratu nahi badute, fidantzaren zenbatekoa galduko dute.

Eskaintzak aurkezteko epea iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik -edo hurrengo egun baliodunetik- zenbatzen hasita hilabetea betetzen den eguneko 14:00etan amaituko da.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egun balioduneko goizeko 10:00etan irekiko dira eskaintza ekonomikoen gutun azalak, Derrigorrezko Dirubilletako Bulegoaren lokaletan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Eskaintzaileak lokal, egun eta ordu horretan egon ahal izango dira.

Dirubilketa Zerbitzuaren buruak irekiko ditu aurkeztutako eskaintzen gutun azalak, eta adjudikatzeko proposamen arrazoitua egin ahalko zaio enkante mahaiari, haietakoren bat une horretan nahikotzat jotzen bada. Osterantzean, epea beste hilabete batez luzatuko dela iragarriko da, eskaintza berriak aurkezteko edo daudenak hobetzeko, une horretara arte aurkeztutako eskaintzen baliozkotasunari kalterik egin gabe, eta horrela hurrenez hurren, sei hilabeteko guztizko mugarekin.

Agiri publikoa formalizatzeko gastuak, erregistro gastuak eta zuzeneko kudeaketa eta adjudikazioaren bidez egindako salmentaren ondoriozko zergak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo bost egun baliodunen barruan ordaindu beharko du prezioa adjudikaziodunak. Hala egin ezean, adjudikazioa baliogabetu egingo da, eta adjudikaziodunak fidantzaren zenbatekoa galduko du. Gainera, sortutako kalte-galera guztiak ordaindu beharko dizkio administrazioari.

Eskaintzarik ez badago edo aurkeztutakoak nahikoa ez direla uste bada, adjudikatu gabeko ondasunak Arabako Foru Aldundiari adjudikatzeko izapideei ekingo zaie, Dirubilletarako Araudi Orokorren 188. artikuluen eta hurrengo arabera.

Interesdunek baldintzen berri izan ahal izango dute Derrigorrezko Dirubilletako Bulegoan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Telefonoa: 945 26 57 40.

Hori guztia ALHAOn argitaratzeko agintzen dut, eta ohartarazten iragarki honek adierazten duela helbide ezezaguna duten zordunak jakinaren gainean geratzen direla, bai eta administrazio arloan interesa duten hirugarrenak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 6a

Dirubilketa Zerbitzuaren burua

JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE